

---

# KATUTXO ETA BALOIA

Testua: JOEL FRANZ ROSELL

Irudiak: CONSTANZE V. KITZING

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

---

Azal gogorrean koadernatua. 23 x 16 cm. 32 orr. 11 €.

**Katutxo eta baloia** (euskara)

ISBN 978-84-7681-719-3. Kalandraka-Pamiela.

**En gatet i la pilota** (katalana)

ISBN 978-84-15170-21-1. Kalandraka-Hipòtesi.

**Gatito y el balón** (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-58-4. Fuera de colección.

**Gatiño e o balón** (gallegoa)

ISBN 978-84-8464-790-4. Fóra de colección.

**Gatinho e a bola** (portugesa)

ISBN 978-989-8205-81-0. Livros para sonhar.

**Gattino e il pallone** (italiera)

ISBN 978-88-95933-43-6. Libri per sognare.

**Little cat and the ball** (ingeleza)

ISBN 978-84-8464-791-1. Books for dreaming.

*Egun batean, Katutxo eskolatik zetorrela, baloi eder bat aurkitu zuen bere etxearen aurrean. Katutxok inguruan begiratu zuen baina kalean ez zebilen inor, inor ez lorategian, inor ez patioan... Baloi hark jaberik ez zuela pentsatu zuen Katutxok, eta hartu egin zuen.*

Etxe berri batera iritsirik eta auzokide berriak dituela, Katutxok oraindik ezin izan du gainditu lagunak egiteko herabetasuna. Galdutako baloi bat halabeharrez topatu duenean, bakarrik jolastu ahal izango duela uste du, baina amak aurretik baloiaren jabea bilatzeko esan dio. Horrela ezagutu ditu Ahateme, Katagorri, Untxi eta Triku.

Txikienak jarrera positiboen bidez baina tinkotasunez, jabegoaren eta erantzukizunaren zentzua, norberekoi-tasunaren aurrean bizikidetzeta eta eskuzabaltasuna bultzatzea, horra lehen irakurleentzako album honen giltzetariko batzuk; egituraren aldetik, gainera, narrazio errepikakorra eta, pertsonaien aurkezpenean, zenbakien beheranzko ordena darabiltza.

Ilustrazioen kalitateak, testura eta kolore biziak lagun, irakurleak giza itxurako animaliekin identifikatzen laguntzen du, gaur eguneko hiri giroko alegia honetan.



- 
- **Galak:** adiskidetasuna, partekatzea
  - **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.
  - **Alderdi nabarmenenak:** “Pájaros en la cabeza” (La Rosa Blanca eta The White Ravens sariduna), “Don Agapito el apenado” eta “El paraguas amarillo” (Kalandraka) albumen egile berarena; gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak; norbere-koikeria, jabegoaren zentzua; zenbakien ordena; eskema narratibo errepikakorra.
- 

## Joel Franz Rosell

(Cruces, Kuba, 1954)

Idazle, ilustratzaile, kritikari, irakasle eta kazetaria. Kuba, Brasil, Danimarka, Argentina, Espainia eta Frantzia bizi izan da, bertan umeentzako liburu ugari idatzi dituelarik. Haren lan batzuk telebista, irrati, komiki eta fotonobela, antzerki eta ahozko narrazioetarako egokituak izan dira, bereziki haren jaioterrian. Kritika eta saiakera lanak ere argitaratu ditu Europa, Amerika eta Asiako aldizkarietan. Jasotako sarien artean, honako hauek aipa daitezke: The White Ravens saria (Jugendbibliothek, Alemania) 1996 eta 2005ean; La Rosa Blanca saria (Kubako Idazle eta Artisten Elkargoa) sei aldiz 1995 eta 2005 bitartean; eta Cherburg hiriko saria (Frantzia, 2001). <http://elpajarolibro.blogspot.com/>

## Constanze v. Kitzing

(Göttingen, 1980)

Arte lantegi batzuetan parte hartu zuen 2001ean. Gero, 2002 eta 2008 bitartean Ilustraziogintza ikasi zuen Hanborgoko Zientzia Aplikatuak Unibertsitatean, Minneapoliseko Arte eta Diseinu Eskolan (AEB) eta Weimarreko Unibertsitatean (Bauhaus). Freelance ilustratzailea izateaz gainera, Der Spiegel aleman egunkariko diseinu sailean lan egiten du. <http://www.constanzevonkitzing.de/>

---

www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www.  **Pamiela** .com  
ctxca  
soltxate@pamiela.com

---